

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Cultur programak zazpi jarduera antolatu ditu Oliten, Vianan, Xabierren, Otsagabian, Zangozan eta Lizason asteburu honetarako

Irekita jarraitzen dute erakusketa hauek: Mikel Esparzarena, Agoitzen; Iruña Cormenzanarena, Los Arcosen eta Javier Sueskunena, Bertizaranan

Viernes, 05 de agosto de 2011

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak antolatutako **Cultur 2011** programak beste zazpi kultur jarduera antolatu ditu asteburu honetarako, Foru Komunitateko agertoki turistikoetan. Zehazki, ekintzak izango dira Oliten (2), Vianan, Otsagabian, Zangozan, Xabierren eta Lizason (Ultzama).

Gaurko, abuztuak 5, pintura-erakusketa antolatu du Xabier Alvarez de Eulate aitaren koadroekin. San Frantziskoko komentuen klaustroan ikusgai izango da 18:00etatik aurrera. Leku berean ganbera-musikako kontzertua egingo da, biolin, biola, biolontxelo eta pianoekin, Vivace Ensamblaren eskutik, 20:00etatik aurrera.

Larunbatean, abuztuak 6, 22:00etatik aurrera, dantza folklorikoa izango da Iruña Taldearen eskutik, Vianako Foru Plazan. Ordu berean, Jade Caravanek jazz kontzertua emango du Otsagabiako plazan, eta Zangozako Vallesantoro Jauregia kultur etxean musika emanaldia izango da Montse Zabalza Cuarteto taldearen eskutik, 20:30ean.

Igandean, abuztuak 7, bi kontzertu izango dira 12:00etan. Haietako bat, Xabierreko auditorioan izango da, Colar Olitense taldearen eskutik; bestea, Ogiko Hariztian izango da, Lizason (Ultzama), ganbera-musikako kontzertu batekin, flauta eta hari-hirukotearekin, Ori Laukotearen eskutik.

Halaber, irekita jarraitzen dute erakusketa hauek: Mikel Esparzarena, Agoitzeko kultur etxean; Iruña Cormenzanarena, Los Arcosko kultur etxean eta Javier Sueskunena, Bertizaranako jauregian.

Nafarroako Gobernuaren programa da Cultur, ganbera-musika, koral, jazz eta folk kontzertuak, pintura erakusketak, dantza ikuskizunak, herri kirolak eta artisautza erakusketak antolatzen dituen turismo-interes bereziko lekuetan, bisitariak erosoago egon daitezen.